

ALOKAIRUAK

Etxe hutsen errenta duina, herritar gehienak estutzen dituen soka mozteko

 **JENDARTEA** / Maider Iantzi Goienetxe

Lekeitioko Duinddüz elkartearen borroka-ren zati inportante bat dira eskola izandako etxeak, «maisumaistren etxeak». Bertan egin dugu hitzordua lau kiderekin: Gaizka Likona, Oier Azula, Pototo Natxiondo eta Iñaki Uriarte.

Taldea 2012an sortu zela oroi-tu dute. «Gobernu espainolaren murrizketen aurrean ematen hasi ziren erantzunen artean greba orokorrak zeuden eta urte horretako irailean egin zen bat. Bertan herri modura erantzuteko eta hortik aurrera borrokan segitzeko beharra ikusi genuen. Hala sortu zen herri asanblada. Herri mugimendu guztiek dituzte gorabeherak eta hasieran horrela egin genuen –dio Likonak eskua altxatuz–. Greba aurreko egunetan ehun lagunetik gora bildu ginen herriko plazan eta txantxetan esaten genuen gure Martxoak 15 berezia zela. Gero beherakada hasi zen».

Etxe kaleratzeak kostaldeko herri honetara ere ailegatu ziren. «2013ko otsailean pertsona bat kalean gelditzekotan zen, bagenekien maisumaistren etxe batzuk hutsik zeudela, eta

Barrenera ailegatzen zaigun gai bat da etxebizitzarena, gure bizitzak ukitzen dituen. Oinarrizko eskubide bat, merkatuko objektu bilakatua, soka estu bat langile eta herritarren lepoan. Lekeitioko Duinddüz elkar-teak maisumaistren etxean aitzinera eramandako esperientzia ezagutu dugu, baina ez hori bakarrik.

okupatu egin genituen», agertu du Azulak. Eraikinaren lehen solairuan AEK-ko euskaltegia dago eta bigarrenean Helduentzako Hezkuntzako zentroa. Hirugarren eta laugarren solairuetako etxebizitzak hutsik zeuden eta batean sartu ziren, behar zuen jendeari uzteko asmoz.

Sare sozialik ez duten pertsonak sartu zirela aipatu dute, ba-besteko familia edo lagunik ez

zutenak. Beteta egon dira urteotan etxeok. Denetariko lagunak bizi izan dira: umedun familiak, bertakoak, etorkinak...

Etxeak okupatu eta gero aurrerantzean nola funtzionatu erabakitze-ko asanblada bat egin zuten 40 bat lagunek. Planteatu zuten arnasmune bat ematea, oasi bat, etxerik gabe gelditzen ahal zen pertsona batek lasaitasunez bizitzari aurre egiteko.

Okupatutako etxean denetariko lagunak bizi izan dira: umedun familiak, bertakoak, etorkinak... Txandakatzea gauzatu da, baten egoera hobetzean hurrengoari lekua utziz

Behintzat kalean ez egoteko eta babes sozial bat izateko. O euro ordainduta bizitoki bat eta bizitza berriro zerotik hasteko aukera izateko. Txandakatzea bultzatu nahi zuten, egoera hobetzean bertze norbaiti lekua utziz. Baina gauza bat da teoria eta bertzea praktika eta zalantza zuten ea zilegi zen eurek jarraipen mota hori egitea. «Erabaki genuen ezin genuela. Hemen gertzen dena gure babesaz gertzen da, baina autonomia osoaz». Euren ateak zabaldu zituzten, baina bakoitzak bizi zen etxearen giltza hartu zuen.

Praktikan ikusi dute txandakatze hori gauzatu dela. 2013tik

2016ra dozena bat lagun biziko ziren. Bertan egon diren batzuek kontatu dute bi gauza izan dituztela buruan etxe honetatik ateratzean: batzuek beren egoera hobetu dute. Lana edo bizilekua topatu dute edo gutxieneko laguntza lortu dute. Bertzeek, aldiz, adierazi dute atera nahi izan dutela hurrengo bati lekua uzteko.

Orain ez da inor bizi bertan eta zer egin hausnartzen ari dira. Bost etxebizitza daude okupatuta eta horietatik hiru daude erabilgarri. Udan gazteak sartu ziren. Dena dela, Duinddüz elkartearen ekintzak ez dira lau horma hauen barrenera mugatzen; lan zabalagoa egiten dute.

GUZTIEN ARAZOA, EZ GAZTEENA SOILIK

«Etxebizitzaren arazoa gazteekin lotzen da, baina 60 urteko batek zergatik ezin du arazo bera eduki?» galdetu du Pototo Natxiondok. «Nire kasua, adibidez. Lantegi batean nenbilen, itxi egin zen eta kalean gelditu nintzen. Orain jubilatuta nago eta ondo, baina beste batzuk miserialan daude 50 urterekin. Horiek arazoak eduki ditzakete berdin-berdin, edozein gazteren moduan, edo txarrago, agian



Bartzelona, airetik ikusita. JackF / Getty Images

ERRENTAN BIZI DIRENEN SINDIKATUA BARTZELONAN

Bartzelonako Observatori DESC plataformak eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak defendatzen ditu pertsona guztientzat. Irene Escorihuela da plataformako zuzendaria. Alokairuan bizi den jendearen sindikatu bat sortzekotan dira eta proiektuaren berri eman digu. «Nazioartean lan egin izan dugunean, beste talde batzuekin, sarri ikusi izan dugu

alokairuan dauden pertsonak antolatuta daudela eta beren elkarte eta sindikatuak dituztela. Garrantzitsua da hori, alde batetik etxejabeekin negoziatzeko boterea dutelako eta Administrazioarekin mintzatzeko direlako, eta, bestetik, beren eskubideak babestu eta prezioen igoerak eta abusuak salatzen dituztelako».

Katalanei ere interesgarria iruditu zitzaion eragile sozial bat izatea, diskurtso bat eta salaketak zabaltzeko ez ezik,

baita errentan bizi direnak antolatu eta eguneroko kontuei erantzuteko ere: aholkularitza juridikoa egiteko, alokairuan direnen eta etxejabeen arteko bitartekaritza... Zer-nolako sindikatu eratu eztabaidatzen ari dira orain. Printzipioz hiri mailakoa izanzen litzateke.

PREZIOAK BIKOIZTERAINO

Escorihuelak agertu duenez, Bartzelonan alokairuan bizi diren pertsonak gehien kezkatzen dituen prezioa da,

ume bi dauzkatelako». Horregatik, Duinddaz elkartekoek etxebizitzaren arazoa guztiena dela azpimarratu ohi dute. «Halako mobidetan beti egon izan dira gazteak, baina hemen gaude gazte izandako bi ere», dio Iñaki Uriarte elkarriketan sartuz.

Diotenez, gazteak gurasoen etxetik atera ezin izatea bada arazo bat, baina orokorragoa da auzia. Banandutako pertsona ugari ukitzen du, baita pentsio eskasekin bizirautean ari den erretiratu eta alargun pila ere. Banandu eta gero Lekeitioko kanpinean bizi dira batzuk. Arazoa ez dela gazteena soilik erakusten du maisu-maistren etxean bizi izan direnek 30 urtetik gora izateak ere.

2.000 ETXE HUTS

«Etxebizitza eskubide bat da, baina Lekeition ez da bermatzen, etxeak soberan edukita», ohartarazi dute. Eustaten datuen arabera, 7.000 biztanle dira, 5.000 etxe daude eta horietatik %40an ez dago inor erroldatuta. 2.000 bat etxe huts daude hautsa hartzen. Duinduz elkarteko kideek kontatu dutenez, jende aunitzek ditu bi etxe, itsasoan ibilia delako eta



Pototo Natxiondo, Gaizka Likona, Oier Azula eta Iñaki Uriarte, maisu-maistren etheen aitzinean. Marisol RAMÍREZ / ARGAZKI PRESS

sasoi batean dirua irabazten zelako. Baina gaur egun langile ugari hilabete bukaerara ezin ailegatuta dabil. «Beharra edukitzeak ez du esan nahi ase zaudenik». Gainera, etheen prezioak ikaragarri igo dira 80ko hamarkadatik. Milurteko aldaketarekin 70 metro koadroko etxe ba-

ten batez besteko prezioa bikoiztu egin zen Estatu espainoan, 200.000 euroak gaintutuz.

INE estatistika institutuaren grafiko batean etxeko gastuen konparaketa ageri da, 1975 eta 2014 artean, eta bertan ikusten da lehen janarian joaten bazen soldataren puskarik handiena

(%30 baino gehiago), orain etxebizitza ordaintzera bideratzen dela kantitate hori.

Elkartean kale dinamikak egiten dituzte, salaketa sozialak, eta alternatibak ere ematen dituzte. Maisu-maistren etheen esperientzia praktikoak erakutsi die soluzioa ez dela instituzioe-

ZER DA ETXE HUTS BAT?

Elkartzen Euskal Herri mailako herri eragilea erreferente da Lekeitioko Duinduz elkartearantz. Eskubide sozialen alde 2000n sortu zen mugimendu horrek badu etxebizitzaren inguruko gida bat, herri eta auzoentzako tresna bat (www.elkartzen.org) helbidetik jaitsi daiteke). «Irtenbideak badaude, baldin eta antolatzen bagara», diote bertan.

Bertzeak bertze, etxe hutsa zer den definitzeko ahalegina egin dute, «kontzeptu juridiko zehaztugabea baita eta Administrazioa horretaz baliatzen baita neurri eraginkorrik ez hartzeko». Elkartzenek zehazten duenez, etxe hutsa 295 egun baino gehiagoz eta justifikaziorik gabe bizilagunik hartzen ez duena da, Euskal Herrian ditugun atsedeen egunak kontuan hartuta, asteburuak barne.

2013ko legearen azken moldaketaren ondorioz, kontratuak bost urtetik hiru urtera pasatu zirelako eta aunitz amaitzen ari direlako. «Momentu honetan etxejabeek prezioak bikoiztu ere egin ditzakete, ez baitago inongo mugarik. Azken urteetan izugarri igo dira prezioak, eta, ondorioz, pisua utzi behar izan du lagun ugari, auzoa ere bai, egoera nahiko zabaldua dagoelako. Hain zuzen, hedapen horren ondorioz, jabeek pentsatzen dute: 'Zergatik ez dut igoko nik ere?'».

Bartzelonan batez beste 800 euroan dago alokairua. Observatori DESC plataformako zuzendariak familien errenta eta erosteko ahalmena kontuan hartu behar direla erran du, sol-

data berarekin 300-400 euroko igoerei aurre egitea guztiz ezinezkoa baita. Jakinarazi duenez, 2015etik aunitz goititu dira prezioak. «Higiezinen atariei ideia hori zabaltzea interesatzen zaie, jendeari proposatutako prezioak onartu behar dituela errateko, nahiz eta altuak izan. Baina datu ofizialek ere gauza bera diote. Jende ugari iragiten dio, ez soilik Bartzelonan, gainerako metropoli eremuan ere bai, itxura batean turismoaren eraginik ez den lekuetan. Jendea hiriaren kanpoaldera joaten da bizitzera, eskaera igozten da eta horrekin prezioak».

LA BORDA ETXE KOOPERATIBA

Kontatu digu hirian hainbat proiektu daudela martxan eta

La Borda etxe kooperatiba dela garrantzitsuena, espazio bat zuzetik datorrelako, Sants auzoko bizilagunen urte luzeko borroka batetik.

Bertze era batera bizitzea eta harremanak nola izan aukartzea proposatu dute Sants auzoan. «Erabilera lagatze sistema bat diseinatu dute. Irizpide sozialak ere badituzte. Lurra 75 urterako utzi du Administrazioak. Jabea kooperatiba da, ez pertsonak. Higiezinen burbuila sortu duen salerosketatik hara-

go, etxebizitza izateko beste modu bat da».

Proiektu autonomoa da, hori bai, auzoko ekimen sozialekin harreman estua du. Bizitzera sartzen denak sarrera bat ordaintzen du eta gero hilero kuota bat. Etxea bertan bizi diren pertsonen egokitzen saiatzen dira eta espazio komunitarioak ere badira. Normalean alokairuan bizi den lagun bakoitzak bere garbigailua izaten du; etxe kooperatiba honetan, aldiz, parte kolektiboak ere ba-

15.000 pisu turistiko inguru daude Bartzelonan. Horietatik 9.606 legezoak dira eta 6.275 legezo kanpokoak. Jende ugari bere etxea eskaintzen ari da lizentziarik gabe

dira, etxeko lanak eta zaintza-koak partekatzen.

Bartzelonaz solas egitean ezinbertzean agertzen da turismoaren gaia. Observatori DESC plataformako zuzendariak dioenez, egoera ez da jasagarria. «Hiria modan jarri da. Hondartzak beteta daude martxoan eta ez dut pentsatu nahi nola egonen den abuztuan!».

Jende ugari etortzen da hiria bisitatzera eta hori eragin handia izaten ari da etxebizitzan. «Etxegabetze aunitz gertatzen ari da kontratuak bukatzen direlako eta familia bati alokatzen segitu beharrean, lehen aipatutako 800 euroko batez bestekoarekin, etxe hori eguneko edo asteko alokatzen dietelako turistek askoz garestiago».


tatik etorriko, baizik eta etxe hutsen erabilpenetik. Hauek konponbidearen parte izan daitezke, alokairura aterata prezio duin batean, urte osorako eta epe luzerako aukerarekin.

BULEGO HERRITAR BAT

Etxe hutsen alokairurako bulego herritar bat sortzea proposatzen dute. Diru irabazi asmorik gabeko elkarte herritar batek osatuko luke, eta espazio fisiko batean kokatuko litzateke. Berau izanen litzateke etxe hutsak jabetzan dituen eta etxeak bizitzeko behar dituen jendearen arteko lotura puntua.

Era berean, elkarte hau izanen litzateke alokairuen irizpideak jarri eta etxe jabearen eta alokatzen duen pertsonaren arteko kontratua behar den bezala egiteaz arduratuko litzatekeena.

Honakoak izanen lirateke etxea alokatzeko baldintzak: urte osorako izanen litzateke; ordainduko den diru kantitatea ezingo litzateke hileko 350 eurotik pasatu; kontratua bost urterako izanen litzateke, gero bost urteka luzatzen joateko aukerarekin; eta alokatzen duenak etxea ongi zaindu eta egoera onean bueltatuko du.



«Etxebizitzaren arazoa egiturazkoa da, sistema kapitalistaren muinean dago. 2008ko krisiaren oinarrietako bat izan dira higiezinaren booma eta hipotekak. Horrekin batera, langile klasearentzat zama bat etxebizitza. Lan baldintza txarrak sufritzeaz aparte, aterpe bat eduki ahal izateko kondena bat duzu: etxea erosi eta sekulako hipote-

Lekeitioko maisu-maistren etxean okupatutako pisuetako baten atean jarritako mezua.
Marisol RAMIREZ | ARGAZKI PRESS

kan sartu behar duzu, edo, Lekeition bezala, abusuzko alokairuak ordaindu, 600-800 eurokoak». Herri turistikoa izaki, udako alokairuak izaten dira. Bi hilabetekoak, ohi baino garestiagoak. Ondorioz, gehiegizko prezioaz gain, urte osorako alokairua topatzea bera da arazoa.

«Bigarren etxebizitzez gain, espekulazio hutserako erositako

etxe huts pila dago», gaitzetsi du Oierrek. «Ezaugarri askok eragiten dute –jarraitu du Gaizkak–. Euskal Herriko herririk txikienetakoa da Lekeitio. Ez ditugu bi kilometro karratu eta ez du zentzurik gehiago eraikitzeak». Erantsi dutenez, «toki guztietatik urrun dago eta ez dago lanik». Bilbon lan egiten duen lagun ugari hara joan da bizitzera eta Lekeitio inguruko herri txikiak bertako gaztez bete dira, pisuak merkeago daudelako.

KONTZIENTZIA ETA PRESIOA SORTU

«Etxebizitza oinarrizko eskubide bat den arren, merkatuko objektu bilakatu da eta espekulazioaren gurrupila ez da gelditzen. Banketxeak, higiezinak, eraikuntza enpresak, instituzio publikoak... Jende asko aberastu da Euskal Herrian eta Lekeition ere bai. Erantzukizunaren parte bat etxebizitza inbertsio modura hartu eta espekulatu duten herritarrena ere bada. Hemen ton-toenak ere bi etxe dituela esaten da. Herentzian, itsasoan dirua irabazita... Kontzientzia sortu behar da, baita presioa ere, etxe horiek alokairuan ipintzeko, baldintza egokietan», azaldu du Likonak.

Egoera horren aurrean erresistentzia artikulatzen ari dira herritarrak. Turismo jasangarriaren aldeko auzoetako asanblada sortu da eta hainbat proiektu daude, batez ere turismoaren eragin handiena duen hiriaren zentroan.

Egoera larria da. Bereziki sumatu dute hori azken bi urteetan. Adibidez, eraikin aunitz erosten ari dira, barrenean jendea bizi dela, eta higiezinaren jazarpena egiten ari dira, bizilagun horiek joateko eta luxuzko pisuak egiteko eta luxuzko eta urtarokako alokairuak martxan jartzeko. Urteko gainontzeko egunetan hutsik egoten dira etxeak.

«Ondorioz, bizileku gutxiago dago ohiko alokairurako eta

egoera kritikoa da jada. Alokairuen eskaintza txikitzen ari da eta dauden eskaintzek prezio izugarriak dituzte. Zail dute hemen bizi eta lan egiten duten herritarrek».

15.000 pisu turistiko inguru daude. Horietatik 9.606 legezkoak dira eta 6.275 legez kanpoak, lizentziarik gabekoak. «Alojamendu turistikoa eskaintzen duten B&B eta *on line* plataformen datuak eta lizentzia kopurua konparatuta, agerian gelditu da jende ugari bere pisuak eskaintzen ari dela lizentziarik izan gabe», esplikatu du Irene Escorihuelak.

ERRESISTENTZIA EKINTZAK

Turismo jasangarriaren aldeko auzoetako asanbladak ekintza

bat egin zuen autobus turistikoetan, Bartzelona erakusleihohiri bihurtzen ari dela eta bertan bizi den jendea gero eta egoera zailagoan dagoela ohartarazteko.

Bertze erresistentzia ekintza bat etxebizitza bloke bat ordezkatzeko hotel entzutetsu bat okupatzea izan zen.

Urtarrilaren bukaeran mobilizazio handi bat egin zen, bizilagun elkarte, giza eskubideen aldeko talde, sindikatu eta antolakunde ugari babestu du-

«Manifestazio bat egin genuen Les Rambles pasealeku ospetsua okupatuz. Espazio hori berreskuratzeko modu bat izan zen. Bartzelona ez dagoela salgai aldarrikatu genuen»

ten kanpaina bat. «Manifestazio bat egin genuen Les Rambles pasealeku ospetsua okupatuz. Herritarrek espazio hau berreskuratzeko modu bat izan zen. ‘Bartzelona ez dago salgai. Hau gure hiria da’ aldarrikatu genuen Les Ramblesen, dagoneko Bartzelonako inor joaten ez den kalean, turistak besterik ez daudelako eta ez delako erakargarria hemen bizi garen jendearentzat. Lagun ugari bildu ginen. Nazioarteko prentsa dezentente ere etorri zen. Bartzelona

negozio turistiko bihurtzen ari dela deitoratu genuen, zeinetan hotelen industria aunitzez gehiago irabazten ari den baina herritarrak galtzen ari garen», kontatu du Observatori DESC-plataformako zuzendariak.

Ekimen interesgarria iruditu zitzaion hainbat elkarte eta auzotako jendea elkartu zelako, aldarrikapen desberdinekin, auzo jakin batean hotelik egitea nahi ez duten bizilagunetatik hasi eta turistek etxe atarietan pixa egiten dutela-eta nazka-nazka eginda daudenetaraino.

Turismoarekin lotutako lan prekarietatea ere gogor gaitzetsi zuten, «hotelek sekulako irabaziak izaten dituztelako langileen erabateko lan baldintza eskasak bizkar». Hala zein eko-

«Alternatiba herritar bat artikulatzeko kapaz izan behar du gu –segitu du Azalak–. Hori erraza den? Inondik ere! Gaur egungo espazio eta egoeretan askoz gaitzago. Baina saiatzen ari gara». Bi norabidetan lan egiten dutela dio Likonak: «Alde batetik, erantzuleak salatzen eta presionatzen; eta bestetik, etxe hutsak dituen jendea konbentzitzen ahalegintzen, baita presionatzen ere, ez bakarrik alokairuan jartzeko, baizik eta lortzeko etxe bat alokatzera goazenean 600 euro eskatzen digutenean guk esatea, 'ez, 600 ez, hori gehiegi da; 350', eta hurrengoak ere berdina esatea». Bartzelonan egiten ari diren bezala, etxea behar duen jendea antolatzen eta saretzen joatea da bidea lekeitiarrentzat, dituzten esku-bideez jabetzeko.

MUINERA JOAN EZEAN, ADABAKIAK

Etxebizitza politikekin alokairuen prezioak mugatzeko premia azpimarratu dute, etxeak herritarren zerbitzura egoteko eta merkatuko objektu izateari uzteko. «Ezin naiz etxe hutsekin aberastu. Ateratzen dudana diruak gastuak eta konponketak ordaintzeko balio behar du».



Duinduz elkarrekin kale dinamika du ardatz. Marisol RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

Instituzioek egin dezaketen ekarpenaren inguruan gogoeta eginez, erran dute arazoaren erantzuleetako bat direla eta ate

birakariak eta lurren birkalifikazioak errealitate bat direla. «Indar aurrerakoioak saiatu ahal dira espekulazioaren gurgila

apurtzen, baina kalean ez bada go errealitateari aurre egingo dion mugimendurik erakundek adabakiak jarri besterik ez dute egingo». Adibidez, ondusun higiezinaren gaineko zerga igo da Bizkaiko herri ugartan, tartean Lekeition. «Baina ez badago politika aktiborik alferrik da ondasun higiezinaren gaineko zerga apur bat igotzea. Lekeition

ko Udalak jakinarazi du gazteei laguntza emango diela alokairuak ordaintzeko. Baina ez da benetan arazoaren muinera joaten: etxebizitzak merkatuko objektu izateri utzi behar dio».

«Horrek EAJ antikapitalista izatea suposatuko luke. Oximoron bat...», dio Gaizkak. Eta Oierrek jarraitu dio: «Edo Konstituzio espainolak dioena onartzea. Ematen du boltxebiak gaitzago baina etxebizitza eskubidea dela esaten du Konstituzioak. Hezkuntza guztia pribatizatu balitz eskuak burura eramango genituzke, baina etxebizitzarekin ez da ezer gertatzen. Gainera, langile batek etxea erosi ahal zuen garai batetik geroztik, baina gaur ezin du eta ematen du dela pertsona horrek ez duelako ezer egin».

Kale dinamika dute ardatz Duinduz elkarrekin eta ideiak ez zaizkie falta. Aldizkaria aterako dute aurki, probokatuz eztabaida sortzeko asmoz. Arazoak hamaika alternatiba osagarri izaten ahal dituela deritzote, eta beren ekarpena egiten dute. Gakoa litzateke eurentzat Euskal Herrian mobilizazio sozial handi bat sortzea, sistemaren zirrikituetatik indarra egiteko.

«Naturala etxe bat erostea dela ematen du, baina hamaika politikarekin elikatu da, desgrabatzen hasi eta kanpainetara. Jendea alokairuan bizi da ezin duelako etxea erosi»



Turista bat, Bartzelonako Güell parke ezagunean. Halfpoint | Getty Images

nomia mota sortzen ari den gaitzetsi zuten.

Hiritarren ongizatea zainduko duen turismo jasangarria lortzea ez da erraza. Turismoa gutxiagotzea da egiten den eskaera bat eta Irene Escorihuelak uste du turismoa gutxiago mugatuko litzatekeela herritarren mobilizaziorik eta presiorik egon ez balitz.

«Ez da bilatzen zen ideala, baina izan zitekeena baino hobea da. Turismoaren hazkundea txikiagoa izan da erabat libre izan balitz gertatuko litzatekeena baino. Garrantzitsua da pisu turistikoaren gaia, hiria nola saltzen den, eta nola inbertitzen den hain turistikoak ez diren auzoetan», adierazi du plataformako zuzendariak.

AURRENA ONGI JAN, GERO, AKASO, ERRENTA ORDAINDU

Aldarrikatu beharreko borrokaren eredu bat da Observatori DESC plataformako zuzendari Irene Escorihuelarentzat 1931n Bartzelonan egin zen alokairuen greba, 83 urte geroago antzeko egoerak errepikatzen direlako: langabe pila, etxegabetzeak, abusuzko alokairuak... Gaur egun, gainera, paradoxa triste bat gertatzen da: jendea etxe beharrean eta bizileku hutsak barra-barra.

Manel Aisa Pampolsek "La huelga de alquileres y el comité de defensa económica" liburuan berreskuratu du CNT sindikatuaren babesean sortutako ekimena, emakumeak protagonista izan zituena. 100.000 etxetan alokairua ordaintzeari utzi zioten. Prezioak %40 jaistea eskatzen hasi eta etxebizitzaren ordainketaren legimititatea bera zalantzan jartzera ailegatu ziren. Zer den justua eta zer ez herri xeheak erabakitzeko pausoa eman zuten. Honako aholkua ematen zuten: «Lehenengo ongi jan, eta, dirurik ez baduzu, ez ezazu alokairurik ordaindu».